

URRETXU ETA ZUMARRAGAKO UDALTZAINAK

·Zuek bai jakin!/: Gotzon Aranburu ·Elkarrizketa: Miren Josu Aranburu eta Joseba Garmendia ·Izerdi patsetan: Gorka Azkarate ·Boteprontoan: Gaizka Alberdi

# Herri Aldizkaria Otamotz

2010eko

azaroa

161. alea






Ipeñarrieta, 5 - ☎ 943 72 50 75 - URRETXU  
Udala enparantza- ☎ 943 79 00 43 - ARRASATE  
San Lorenzo, 1 - ☎ 943 53 35 48 - OÑATI



**FAGOR**



**Argitaratzailea:** Zintzo Mintzo. Labeaga 12, Urretxu. 943 03 64 74 **Koordinatzailea:** Asier Zaldua **Erredakzio kontseilua:** Alex Areizaga, Aintzane Arizmendiarieta, Jonmikel Intsausti, Sebas Iturriotz, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Igor Susaeta eta Asier Zaldua **Diseinua:** Ane Miren Ormazabal **Euskara zuzentzailea:** Marian Toledo **Azaleko argazkia:** Gotzon Aranburu **Banaketa:** Aintzane Arizmendiarieta **Publizitatea:** Oihana - 647 319 757 **Inprimategia:** GOI DESIGN **Lege Gordailua:** SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318 **Tirada:** 1.500 ale **Otamotz** aldizkariak ez du bere gain hartzen adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik

## aurkibidea

- 04 Hilabete honetako gaia**  
Urretxu eta Zumarragako udaltzainak
- 11 Argazki zaharra**
- 12 Komikia / Egurra partitzen**
- 13 Zenbat buru, hainbat aburu**  
Krisiak Gabonak ospatzeko moduan eragina izango al du?  
Gutxiago gastatuko dela uste al duzu?
- 14 Bota bertsoa! / Iritziz iritzi**
- 16 Klik eta klik**  
Josu Perez
- 18 Zuek bai jakin!**  
Gotzon Aranburu
- 22 Elkarrizketa**  
Miren Josu Aranburu eta Joseba Garmendia
- 26 Izerdi patsetan**  
Gorka Azkarate
- 28 Gure aholkuak**
- 29 Literatura**
- 30 Boteprontoan**  
Gaizka Alberdi



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko Udalak eta Zumarragako Udalak emandako diru laguntza jaso du. Bestalde, Otamotz Tokikom ekimeneko kide da.

# Udaltzainak: gugandik gertuen ditugun lege betearazleak

*Anbulatorioko arduradunarekin eta suhiltzaile parkeko sargentuekin hitz egin ondoren, Urretxu eta Zumarragako udaltzainekin izan gara erreportaje sorta honi amaiera emateko. Ramon Iturriotz eta Unai Lazkano luze eta zabal aritu dira euren lanbideari buruz.*

Zumarragako udaltzain bat Iparragirre hiribidean.



Ramon Iturriotz Hernanin jaio zen duela 50 urte. "Nire aitak Hernaniko Pedro Orbegozo enpresan lan egiten zuen eta horregatik jaio nintzen han. Hilabete gutxirekin Urretxura ekarri ninduten eta 17-18 urterekin Zumarragara pasatu nintzen bizitzera".

27 urte daramatza dagoeneko udaltzain lanean. "Magisteritza ikasi nuen, baina garai hartan oso zaila zen lana aurkitzea. Ikasketak bukatu bezain pronto Urretxuko Udaltzaingoan lan egiteko aurkeztu nintzen. Plaza bat libre zegoen, baina probetan bigarren gelditu nintzen. Handik urtebetera Zumarragan bi plaza atera ziren eta horietako bat lortu nuen". Udaltzain izatea ez zen bere umetako ametsa, baina egun gustuko lana du. "Ez nuen lana ezagutzen, baina besterik ezean hartzea erabaki nuen. Denborarekin gustuko lana bihurtu zen eta jarraitzea erabaki nuen".

Unai Lazkano, berriz, arrasatearra da eta 34 urte ditu. Lanbide Heziketa ikasi zuen, Marketina hain zuzen ere, eta bere herrian egin zituen udaltzain izateko lehen azterketak. "Bost plaza atera ziren eta, langabezian nengoenez, aurkeztea erabaki nuen. Azterketan bosgarren gelditu nintzen, baina ez nuen nire herrian lan egin nahi. Lan poltsan sartu nintzen, Urretxutik deitu zidaten eta etortzea erabaki nuen". Hiru urte daramatza bertan. Gustura dago, nahiz eta azkeneko urtea gogorra izan den. "Oposaketa garaia denez, urte aldrebesa izan da. Baina finkatuta nago eta poliki-poliki gauzak aurrera ateratzea eta Urretxun nire tokia egitea espero dut". Lazkanok ere ez zuen uste inondik inora udaltzain izango zenik. "Hala tokatu da, gero eta gusturago nago eta hemen

jarraitzeko asmoa dut".

Lazkanok zalantzak izan zituen postua eskaini ziotenean. "Isunen kontua gogorra da. Gu gara jendeari non aparkatu dezakeen eta non ez esaten diogunak. Askotan ez dugu ospe ona. Dena den, beste batzuetan jendeari laguntzeko aukera dugu eta horrekin gelditu behar...". Iturriotzek polizia hitza aipatu du lehenengoz. "Polizia errepresioarekin lotu izan da beti, baina beti ez da hala. Gainera, batzuetan jendeak ez du beste

*Ramon Iturriotz:*

*"Polizia errepresioarekin lotu izan da beti, baina batzuetan jendeak ez du beste aukerarik uzten"*

aukerarik uzten. Kontzientziarioa oso ondo dago, baina ez da erabat lortzen. Garai batean oharra jartzen ibili ginen eta batzuek ez zioten gaizki aparkatzeari uzten. Jendeak badaki legeak zer dioen, baina... Hori dela eta, gehienetan funtzio errepresioa erabili beharra dago. Poliziak gara, nahiz eta ez zaigun hitz hori gustatzen. Munizipalak deitzen digute eta kito. Baina lan honetan hasten garenean autoritatearen agenteak garela konturatzen gara. Horrek gauza onak eta txarrak ditu eta kontuz ibili behar gara. Ahalmen bat dugu eta hori neurtu beharra dugu. Batzuetan herritarrekin izaten ditugun harremanak tirabiratsuak dira. Guk geuk onartzen dugu eta jendeak ere

bai, normalean".

Hori guztia dela eta, Lazkanok ez du bere jaioterrian lan egin nahi. Bere lankideak, ordea, bizi den herri berean lan egiten du. "Gauzak asko aldatu dira. Lehen denok gure herrian lan egin nahi genuen mugitu behar ez izateko, baina denborarekin toki batean bizi eta beste batean lan egitea hobea dela konturatu gara. Bizitokian bertan lan eginez gero, lanordutatik kanpo ere lan egitea tokatzen zaigu: batzuek lanari buruz hitz egiten digute, arazoren bat izan dugun jendeari kalean topo egiten dugu...".

Dena den, Iturriotzek euren lanak gauza onak ere badituela argi utzi nahi du. "Batzuetan bizilagunek eskerrak ematen dizkigute, baita idatziz ere. Eskertza gutunak jaso izan ditugu". Lazkanok ere euren jardunaren alderik onena hori dela uste du. "Eskertzak ez ditugu sarritan jasotzen eta asko baloratzen ditugu". Kideak lana ondo egitea ere nahiko sari dela dio. "Autoa espaloi gainean aparkatzeagatik isuna jaso duena ez dago gurekin gustura, baina batzuetan besteren batek bazela isuna jartzeko garaia esaten digu".

Udaltzainak isunak jartzeagatik dira eza-gunak, baina beste hamaika funtzio dituzte. Iturriotzek 27 urte daramatza lanean eta euren lanbidea asko aldatu dela dio. "Lehenengo funtzioak eta egungoak berberak dira, baina lehen ez ziren betetzen. Lehen erakunde batzuek ez zuten gugarako konfiantza. Beti izan gara epaitegien laguntzaileak, baina orain lana ematen digute: urrutze aginduen kontrola, adibidez. Formazioari dagokionez, oraingoa askoz ere osatuagoa da. Lehen oposaketa gainditzearekin nahikoa zen. Egungo oposaketak lehen baino osoagoak dira

eta gainera ondoren Arkautera joan beharra dugu lau hilabeteko formazioa osatzea. Urtebete praktikan eman ondoren, udaltzain izatera pasatzen gara. Bestalde, noizean behin Arkauten ikastaroak antolatzen dira eta joan egiten gara. Garai batean baino askoz ere prestatuagoak gaude. Lehen lan egunean kalera zer egin behar nuen jakin gabe atera nintzen. Gaizki aparkatutako auto bat ikusi nuen eta salaketa prestatzen hasi ondoren konturatu nintzen gidaria barruan zegoela”.

Arkaute aipatu du. “1992an Eusko Jaurilaritzak Euskal Poliziaren Legea onartu zuen eta bertan argi eta garbi agertzen dira gure funtzioak eta oposaketan izaera. Gai hau guztia gero eta lotuago dago. Egun, adibidez, oposaketen deialdia herrialdeka egitea aztertzen ari dira eta ez herri bakoitzak berea. Guztiok antzerako uniformeak eramatea ere lortzen ari da. Lehen alkateen gustuen arabekoak ziren”. Lazkanok udaltzaingo guztiak berdintzea lortu nahi dela dio. Udaltzaingo guztien koordinazioa Eusko Jaurilaritzaren esku dago. Berdintze hau Urretxu eta Zumarragan bereziki onuragarria da. Izan ere, ez da komeni horren gertu dauden bi herritan udaltzaingoaren arteko alde handia egotea.

Funtzioak gora eta funtzioak behera, baina oraindik dugu horien berri zehatza eman. Lazkanoren esanetan jende askok “isunak jartzeko bakarrik” daudela uste du, baina “lan asko” dituztela dio. “Trafikoak denbora asko kentzen digu, baina instalakuntzak zaintzeaz, udalbatzak kontrolatzeaz, epaitegiek agindutako lanak betetzeaz, azokak zaintzeaz, salaketak jasotzeaz... ere arduratzen gara”. Arrasatearrak euren betebeharrak zein-

tzuk diren azaldu du eta zumarragarrak zeintzuk ez diren. “Ordena publikoa ez da gure ardura. Eredu horretan gure funtzioa Ertzaintzari laguntzea da. Konzentrazio edo manifestazio bat bada, adibidez, informazioa pasatzen digute eta gu trafikoa desbideratzeaz arduratzen gara. Udal ordenantzak betearazteaz, ordea, gu arduratzen gara: txakurren eta zaborren ingurukoak, adibidez. Bestalde, legean azaltzen ez diren gauzak ere egiten ditugu. Izan ere, jendeak nora jo ez

*Unai Lazkano:*

*“Trafikoak denbora asko kentzen digu, baina askoz ere ardura gehiago ditugu”*

dakienean guregana jotzen du: matxura izan dutenean, telefono zenbaki bat aurkitzen ez dutenean, autobusen ordutegiaren berri izan nahi dutenean... guri deitzen digute”. Lazkanok telefonoa “beldur apur batekin” hartzen dutela dio. “Kostako udaltzainei eguraldiaren berri jakiteko deitzen diete”. Hori dela eta, udaltzaingo batzuk larrialdietarako telefono berezia dute. “Batuetan telefonoa okupatuta dugu txorakeriaren batekin eta dei garrantzitsuago bati ezin diogu erantzun”, azaldu du Iturriotzek.

Ertzaintzarekin duten harremanari buruz, “ona” dela diote. “Normalean gu gara eurengana laguntza eske jotzen dugunak: jaietan, Santa Lutzi egunean... ezin gara

toki guztietara iritsi”. Ertzainak, udaltzainak... eta aurki Zumarragan agente zibikoak ere izango dira. “Kontzientziario funtzioa betetzeaz arduratuko dira sei hilabetez. Polizia administratiboari dagokion esparruan lan egingo dute: zaborra ateratzeko ordutegia errespetarazi, txakurrak nola eraman behar diren jakinarazi... Kontu hauengatik isunak jartzen hasi aurretik, kontzientziario lana egitea erabaki genuen eta horretarako kontratatuko dira lau lagun hauek”.

Urretxun bederatzia udaltzain daude. “Orain arte asko interinoak ziren, baina dagoeneko taldea finkatzen ari gara. Hori komeni da, bestela etengabe etorri berriei irakasten ibili behar baikara”. Zumarragan, berriz, hamalau lagun dira. Iturriotzek eta Lazkanok jendea lortzeko arazorik ez dagoela aipatu dute. “Duela urte batzuk langabezia gutxiago zegoen eta ez zegoen horrenbeste jende udaltzaingoetan lan egiteko prest. Egun, krisia dela eta, jendeari hau aukera ona iruditzen zaio. Baina lehen plazarak ateratzen ziren eta orain ez...”.

Biek dagoen langile kopuruaren araberrako zerbitzua eskaini dezaketela diote. “Hamalau asko direla diote, baina sekula ez dugu hamalauok batera lan egiten. Astelehenetik igandera 6.00etatik 22.00ak arte lan egiten dugu. Ordutegi hori osatzeko bi txanda behar dira eta gainera asteko zazpi egunetan lan egiten dugu”, azaldu du Iturriotzek. Urretxun ere antzera lan egiten dute, baina lan eguna 12 ordukoa da.

Urretxuko udaltzaingoa Zumarragakoa baino gazteagoa da. “Gu sartu ginenean gehienak zaharrak ziren eta gero taldea gaztetu egin zen. Ordutik urteak pasatu

dira eta gazteak ginenak zahartzen hasi gara”, dio Iturriotzek. Udaltzainak 65 urterekin erretiratzeko dira eta 60 urtetik gora kalean lan egitea ez dela komeni dio. “Adin horrekin umorea, pazientzia eta dohainak ez dira gaztetako berberak. Adin horretako asko elkarrekin tokatuz gero irtenbidea zaila da”.

Bestalde, Zumarragan ez dago emakumezkorik eta Urretxun bi neska dituzte. Udaltzain izan nahi dutenek lau proba pasatu behar dituzte. Unai Urretxun proba fisikoa (50 metroko esprinta, 800 metroko lasterketa, flexioak, abdominalak eta malgutasun), teoria, kasu praktikoak, psikoteknikoa eta elkarrizketa gainditu behar dituztela aipatu du. “Luze egiten da. Teoriari dagokionez, legeez gain, herriari buruzko gauzak ikasi behar ditugu. Elkarrizketa Arkauteko arduradun batekin egiten dugu eta proba guztiak gainditzeko baditugu Arkautera joaten gara lau hilabeterako. Han proba fisikoak egiten ditugu, autoa gidatu, pistolarekin trebatu... Udaltzain izateko eskola-graduatuak bakarrik eskatzen da, baina probak oso konplexuak dira”. Iturriotz berarekin bat dator. “Graduatuak bakarrik eskatzen da, baina gero autonomia-estatutuari, zuzenbide prozesalari, zuzenbide zibilari, zigor zuzenbideari, administrazio zuzenbideari... buruzko testuak ikasi behar dira. Gehiegitxo iruditzen zait eskola-graduatuak bakarrik duen batentzat. Arkauten gauza berbera: azterketa pila bat egin behar dira eta, gainera, ez dute emaitzarik ematen azken egunera arte. Azterketa gaizki egin dugula pentsatzeko joera dugunez, azken unera arte ez dago erlaxatzerik. Hori da euren helburua”.

Azterketak gainditu ondoren, kalera irtete-

Iturriotz eta Lazkano, lehenengoaren bulegoan.



ko ordua heltzen da. Gidatzeko baimenarekin bezala gertatzen da: ibiliarekin ikasten da. Zer dohain behar ditu udaltzain onak? Iturriotzek udaltzain lana “zaila” dela dio. “Berriei beti gauza berbera esaten diet: enpresa arruntetan jabe bakarra dago eta, bere gustuko gauzak eginez gero, langileari gauzak ondo joango zaizkio. Hemen, ordea, milaka nagusi ditugu. Jendeak ez daki nola lan egiten dugun eta horrek arazoak dakartza. Berari gaizki aparkatzeagatik isuna jarri badiogu gainontzeko guztiei ere hori egitea nahi du. Bere aurretik pasa eta gaizki aparkatuta dagoenari isunik jartzen ez badiogu haserretu egiten da. Baina beti ez gaude trafiko kontuetan lanean. Bestalde, oso zaila da herritarrek honakoa ulertzea: une horretan ikusten ari garen ekintza oso larria izan daiteke edo ez. Niri isuna jarri badidate

gainontzeko guztiei ere jartzea nahi dut, baina ezin gara une oro kale guztietan egon eta egoera guztiak ez dira berdinak. Eskua izan behar dugu, baina zer da hori? Hori da gure lanik zailena: jendeari egoera guztiak ez direla berberak ulertaraztea”. Lazkano bat dator. “Jendeak pertsonalizatu egiten du: askok euren atzetik gabiltzala uste dute”. Iturriotzek batzuek bizilagunak salatzen oihututa dio. “Kale batean auto bat gaizki aparkatuta dagoela esateko deitzen digute batzuetan. Ez badu traba egiten, ezin gara joan. Ez da hori gure lan egiteko modua. Plangintza bat dugu eta lehenago edo beranduago kale horretatik pasatzea tokatuko zaigu. Ezin dugu dena utzi auto bati isuna jartzeko: bidean beste bizilagun baten deia jasoko bagenu zer egingo genuke?”. Horrekin lotuta, Lazkanok dio bizilagun batzuen ustez eguna bulegoan herritarren deien zain ematen dutela. “Ez da hala. Egun guztia lanean ematen dugu. Zer edo zer larria gertatzen denean bakarrik uzten dugu eskuartean duguna”.

Larritasuna aipatu duenez, eurek bizitako unerik larriena zein izan den kontatzeko eskatu diegu. Arrasatearrak oso argi du. “Lanean hasi eta berehala Jauregi kalean sute bat izan zen eta gizon bat hil zen. Aste gogorra izan zen”, oroitu du. Iturriotzek lehen urteetako gertakariak gogoratzen ditu batez ere. “Urte haiek oso gogorak izan ziren: Ertzaintza etorri aurretik Polizia Nazionalea joan egin zen eta 24 orduko zerbitzua eskaintzen genuen. Lapurreta asko zeuden, batzuk armekin. Gu ere gauetan armekin ibiltzen ginen. Bestalde, auto eta tren istripu larriak ere izan dira: ospitaleko bidegurutze zaharreen, industrialdeko sarreran...

Ea nola esaten diozun familiako bati senitartekoa hil zaiola... Udalbatza batzuk ere tirabiratsua izan dira: Indiano hil zutenekoa, arrautzak bota zituztenekoa... Halakoak tokatzen direnean lana uzteko gogo ematen du, baina lanbide guztietan biziko dituzte egoera txarrak. Pasa ondoren, jarraitzea erabakitzen dugu”.

Unerik gozoenei dagokionez, zumarragarrik Santa Lutzi eguneko pasadizoak gogoratzen ditu. “Arratsaldean autoa ez duela aurkitzen esatera etortzen da jendea. Asko edanda egoten dira, herrira nondik sartu diren ahaztu dute, zaila da autoa non egon daitekeen ulertaraztea... Dena den, politena haurrekin lan egitea da: Olentzeroren kalejiran, adibidez. Santa Isabel eguna ere polita. Neketsua baina polita. Egun horretan jendeak beste era batera ikusten gaitu”. Lazkanok herriarren esker ona jasotzea ere gauza polita dela eta jarraitzeko indarra ematen duela dio.

Euren nagusien, alkateen, esker ona ere jasotzen ote dute? Arrasatearrak alkate eta zinegotziekin harreman ona duela aipatu du. Iturriotzek ere harremana zuzena dela dio. “Guk legea jarraitu behar dugu. Politikariek helburuak markatu behar dituzte eta gero nik ditugun baliabideekin noraino hel gaitzkeen esango diet. Gure esku baliabide gehiago edo gutxiago jartzea euren erabakia da. Hori bai, batzuetan euren lana helburuak markatzea dela eta gurea horiek lortzea dela ulertzea kosta egiten zaie: istripu bat badago, badakigu zer egin behar dugun. Nola lan egin behar dugun esaten badigute arazoak sor daitezke. Normalean bai batzuek eta bai besteek badakigu zein den gure esparrua. Dena den, herritar

askok politikariei euren arazo berri ematen diete eta hauek lagundu egin nahi diete, baina batzuetan legeak ez du egin nahi den hori egiten uzten”.

Lazkanok alkate bakarra ezagutu du. Kazetari paperean jarri eta Iturriotzi alkate aldaketa gorabeheratsua izaten al den galdetu dio. “Bakoitza bere ildoa markatzen saiatzen da, baina hori ez da politikariren kontua bakarrik. Futbolaz eta trafikoaz guztiok dakigu... Alkate guztiak iritzi jakin batekin heltzen dira administraziora. Batzuetan arrazoia dute eta besteetan ez. Arrazoia dutela frogatzen badida-

*Ramon Iturriotz:*

*“Delitu kopuruak ez du gora egin: sentipena gauza bat da eta errealitatea beste bat”*

te ez dut nire lan egiteko modua aldatzeko inongo arazorik”.

Alkatez gain, gainontzeko herritar guztiak ere euren nagusiak dira. Urretxuar eta Zumarragarrei aholkuren bat emateko eskatu diegu. “Egoera guztiak berberak ez direnez, ez dago aholku orokor bat ematerik. Besteen tokian jartzea eskatuko nieke. Eskaera hori guretzat ere bada, noski. Hori egingo bagenu gauza asko egin eta esateari utziko genioke”. Lazkanok ez pertsonalizatzeko eskatu nahi die herritarrei. “Ez gabiltza inoren atzetik. Ez gaude batzuen kontra eta beste alde”. Iturriotzek euren lana ondo

antolatuta dagoela argi utzi nahi du. “Udaltzain bati kale batetik hiru aldiz pasatzea tokatzen bazaio eta hiruetan gauza bera ikusten badu, hiru salaketa jarriko ditu. Kaltetuak udaltzain horrek bere aurka zer edo zer duela uste du, baina ez da hala”. Lazkanok argi du zein den mezua. “Guk isuna jartzen dugu, autoak gaizki aparkatuta uzten dituztenak beste batzuk dira”.

Honen guztiaren aurrean, Iturriotzek argazki kamera digitalak oso lagungarriak zaizkiela esan du. “Auto bat gaizki dagoen bakoitzean argazkia ateratzen diogu. Behin emakume batek bere senarraren autoa aipatutako egunean ez zegoela guk genion tokian esan zigun. Egun hartan senarra lanean zegoela. Beharbada senarrak ziria sartu ziola eta azkenean sekulako istilua sortuko zela pentsatu nuen. Argazkia erakutsi nion eta handik bi egunera berriro etorri zen: egun hartan bere senarrak lan egiten duen herrian jai eguna zen eta senarra ez zen lanera joan”.

Bizilagunekin batzuetan harremana tirabiratsua da, baina udaltzaingoen artekoa ona dela diote. “Bi herri garenez, elkarlana ez da oso estua. Bakoitzak bere esparrua du. Kalejiretan eta halakoetan jarri behar izaten gara elkarrekin harremanetan: bi herrietako kaleak hartzen dituzten ekitaldietan”, azaldu du Lazkanok. Iturriotzek elkarlana, beharbada, handiagoa izan beharko litzatekeela aipatu du. “Batek kanpaina bat egiten duen bakoitzean besteak ere egitea komeniko litzateke”. Bestalde, Zumarragako udaltzaingoak Urretxukoak baino gogor ospe handiagoa izan du. “Orain arte asteburuetan ez dugu lan egin eta egun horietan sor-



tzen dira trafiko arazo gehien”, arrazoitu du arrasatearrak.

Bi udalen artean izan ziren hikamikek ez dute udaltzaingoaren arteko harremana ozpindu. “Politikarien betebeharra helburuak jartzea da. Eurek erabakitzen dutena bete beharra dugu, legezkoa den bitartean. Elkarri gure Udalek hartutako erabakien berri ematen diogu eta kito. Autoak ezkerretik joan behar direla badiote hori ez dela legezkoa esango diet. Gainontzekoan, proposamenak egin ditzaket baina erabakiak eurek hartu behar dituzte”, azaldu du zumarragarrak.

Etorkizunari buruz ere galdetu diegu. Ez dute uste euren lana asko aldatuko denik. “Gure lana aldatzeko, legeak aldatu behar dira. Hori bai, orain arte denetarako geundela uste izan da eta hori ez da hala. Gauza batzuk egitea ez zaigu asko kostatzen, eta kaletik erratzarekin joatea ere ez litzauguke kostako, baina poliziak gara. Batzuen pentsamoldea aldatu egin behar da oraindik. Lehen etxe barruko arrastazteak guk zaintzea pentsaezina zen eta hilerriko atea guk irekitzea, berriz, munduko gauzik arruntena. Ez dugu zertan halako lanak egiten ibili beharrik. Bien bitartean zer edo zer gertatzen bada, zer?”, aipatu du Iturriotzek.

Eta zer edo zer gertatzen al da? Lehen baino delitu gehiago ala gutxiago al dago? Goierrri Behean, adibidez, sekulako alarma sortu da herritarren artean. Iturriotzek egoera ez dela larria dio. “Estatistiken arabera, delitu kopuruak ez du gora egin. Sentsazioa gauza bat da eta errealitatea beste bat. Sentsazioa ez du herrian gertatu denak bakarrik eragiten, komunikabideek ere eragina dute: egunkarian egoera okertzen ari dela ira-



Urretxuko udaltzain bat Ipeñarrieta kalean.

kurtzen badut nire inguruan ere dena okerrera doala pentsatuko dut. Oraingoan, hemen, egoera ez da asko okertu. Baina duela hilabete batzuk lapurreta batzuk izan ziren eta horrek ere sentipenean eragina izan zuen”. Iturriotzek eta bere lankideek herritarrek lehen baino beldur handiagoa dutela nabaritu dute. “Jendea kezkatuta dago eta beste toki batzuetan gertatzen dena hemen ere gertatuko dela ziurtzat jotzen du”. Ertzainek eta udaltzainek gaizkileen aurka behar bezainbeste egiten ez dutela diotenak ere asko dira. “Toki batean edo bestean bagaude ikuspuntua aldatu egiten da. Gidaria banaiz oinezkoa zebra-bidetik urrun dagoela iruditzen zait eta pasa egiten naiz. Oinezkoa banaiz,

ordea, autoa gelditu egin behar zela uste dut. Gai honetan berbera gertatzen da: guk denetik egiteko eskubidea dugu, baina aldamenekoa zer edo zer txarra egiten ari dela iruditzen bazaigu berehala zigortzea nahi dugu. Bestalde, jendeak ez du ulertzen arau-urratzeen ondoren prozesu bat hasten dela. Jendeak atxilotuak berehala berriro kalean direla esateko ohitura du, baina epaitegira eramaten denetik epaiketa egiten den arte denbora pasatzen da. Zumarragar bat orain dago kartzelan duela bizpahiru urte egindakoen ondorioz. Gainera, neurri prebentiboak ere badaude. Ezer ez dugula egiten esaten da, baina zelatan egotea ere delituen aurka lan egitea da”, amaitu du.

# UROLA

## ELEKTRATRESNAK

☎ 943 72 02 15 - Faxe 943 72 02 15  
Secundino Esnaola 2, ZUMARRAGA



HARATEGIA URDAITEGIA

☎ 943 72 00 61

Leturiatarren enparantza, 2  
ZUMARRAGA

# MURUA

Oinetako konponketa

Larruzko erropen konponketa.  
Guraiza, labana... zorrozketak

Labeaga, 37 URRETXU  
Golden plazoletan

centro óptico  
**JAVIER ARRATIBEL**  
optika

Ikusmenaren neurketa - Begietako  
tentsioaren neurketa - Graduatutako  
eta eguzkitarako betaurrekoak -  
Lentilak - Termometroak eta  
barometroak

Soraluze, 10 ZUMARRAGA  
☎ 943 72 54 84

## Egumendi, S. L.

Manganeso altzairuaren  
aplikazio teknikoak

Ipeñarrieta, 48  
☎ 943 72 33 01 - Fax: 943 72 43 41  
Urretxu-Zumarraga  
www.egumendi.com  
egumendi@egumendi.com



Ekarri zure argazkiak eta nahi  
duzun moduan aterako ditugu:  
koadroak, mihiseak, muralak...

Labeaga, 35 Urretxu 943 72 41 60

# BIONA

## AROSATEGIA

### Altzariak neurrira

☎ 943 72 02 55  
Erratzu, z/g URRETXU



# SUTAN

Tximiniak, berogailuak, sukaldeak eta estaldurak  
☎ 943 72 06 38 - 665 73 73 02 Fax: 943 72 06 38  
Mugitegi poligonoa, B bidea, 6 bajua - URRETXU  
www.sutan.biz - sutan@sutan.biz

# PREMANK

KANPO-KONTRATAZIO BIDEZKO  
PREBENTZIO ZERBITZUA

KALITATEZKO ZERBITZU  
ERAGINKORRA  
GERTUTASUNA, BIZKORTASUNA  
ETA BEZEROARI ARRETA

Argixao industrialdea, 55 pabiloia  
20700 ZUMARRAGA (Gipuzkoa)  
943 72 41 00  
administracion1@premank.com

# PLAZAOLA ITURGINTZA

Bide-Zar, 5 ZUMARRAGA

☎ 943 72 13 70

Fax: 943 03 75 68



- Dietetika  
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 943 03 75 27

Muntaiak eta Instalazioen Enpresa  
**HERCE**  
Enluzatzen, M. E.

Muntaia eta instalakuntza elektrikoak  
Enpresa mantenua  
Argiteria publikoa

Denda: Ipeñarrieta 4, ☎ 943 72 09 50  
Tailerra: Mugitegi, ☎ 943 72 42 66  
Mugikorra: 656 703 392

20700 URRETXU

## Construcciones MENDIOLA

Labeaga, 9. If. 943 72 05 11 - Fax: 943 72 44 10  
20700 URRETXU (Gipuzkoa)  
E-mail: mendiola@mendiola.com  
www.cmendiola.com

# asirauto

BIGARREN ESKUKO AUTOEN  
ESKAINZA ZABALA

Mugitegi industrialdea, Urretxu

943 72 59 22

659 67 89 79



Edergintza

Edergintza tratamenduak  
Depilazioak  
Solarium

Labeaga, 2 - URRETXU

☎ 943 72 25 13

# TABERNA JATETXEA

Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19  
ZUMARRAGA



Belardenda, dieta eta errejimen elikadura  
Mediku-homeopata kontsulta  
Labeaga, 30 - Urretxu - ☎ 943 72 27 80



alejandra albisua

☎ 943 72 52 22

Soraluze, 6 - Zumarraga



## SUKALDEAK

Ipeñarrieta, 5 - ☎ 943 72 50 75 - URRETXU  
Udala enparantza - ☎ 943 79 00 43 - ARRASATE  
San Lorenzo, 1 - ☎ 943 53 35 48 - OÑATI



## MERTZERIA

Sekundino Esnaola, 2 - Zumarraga  
Tel. 943 72 05 62

# Otamotz

Herri Aldizkaria

Oihana - 647 319 757 - beasain@iragarri.net

TOKI APROPOSA  
DUZU HAUXE  
ZURE IRAGARKIA  
JARTZEKO


## 1981eko apirila

*Herritarrak Xixongo partida gogoangarrian*

Asteburu honetan Realak Sporting taldearen aurka jokatu du Xixonen. Hiri hau oso berezia da talde txuri-urdinaren zaleentzat, bertan lortu baitzuten euren lehen Liga. 1981eko apirilaren 26an Zamoraren gol historikoa zuzenean ikusi zutenen artean, herritarrak ere bazeuden. Argazkian horietako lau ageri dira Xixongo kaleetan. Ezkerretik eskuinera: Inazio Korta, Batis Asenjo, Josetxo Comontes eta Pello Zaldua.




Zure argazki zaharra Otamotzen atera nahi baduzu, deitu 605 718 773 telefono zenbakira.



## egurra partitzen

Jon Torner  
Jon Ormazabal




### Hi non bizi haiz?

Pasa den hilabeteko Otamotzen egurra jasotzeko moduko bi hautagai agertu ziren. Batetik, aldizkari-rikio artikuluen artean balorazio eskasena iritzi sailak lortu izanaren errudun nagusia: borondatea lagun duen aingeru aurpegiko kale-animatzailea. Eta bestetik, edozein lekutara moldatzen den, baina Zumarragan ez bizitzea gustatuko litzaiokoen kirolzale amorratua. Ez dakigu adierazpenok txantxetan, norbait amorrarazteko asmoz ala Hawai aldean hartutako pilula isotonikoen efektupean egin zituen. Berdin du horrek. Animalia sinple samarrak gara gu, eta erraz sutzen gara egurra partitzen gu baino trebeagoak direnekin. Horretan abila dela erakutsi du triatlolari urretxuarrak. Zumarratarron barren-barrenean kolpatzeaz gain, Jon&Jon bikote harreman armoniatsua haustear egon da. Urola errekek lortu ez duena — oraingo —, bost hitz horiek lortu dute ia-ia: “Zumarragan ez bizitzea gustatuko litzaidake”.

Bikotea banatzeaz egon bada ez da izan *korrekaminosek* esandakoen inguruan iritzi kontrajarriak ditugulako, adierazpen horiei erantzuteko momentuan desadostasunak sortu direlako baidak. Jon txintxoak errieta egin bai, baina ez zion irain mingarririk zuzendu nahi. Aitzitik, Jon gaiztoak tonu *amarillistagoan* hasi nahi zuen artikulua, hemen idazterik ez dauzkagun hitz-joko original batzuekin. Eztabaida gogorren ostean Jon diplomatikoaren diskurtsoa nagusitu zen. Ez pentsa erabaki onena hori izan denik. Jon gaiztoa muturtuta dago, barruan duen haserrea askatu ezinagatik. Eta Jon txintxo berdin, azkenean artikulua zozongo samarra atera zaigulako. Postdata: Justu testu hau maketatzerantz bidali behar genuenean, titular hau topatu genuen Berrian: “Bilbon eta Zumarragan salbu, airearen kalitatea ona da Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan”. Gure triatloilariak bazekien zerbait...

## Krisiak Gabonetan eragina izango al du? Gutxiago gastatuko dela uste al duzu?



Reyes Rodriguez



Aurreko urteetan baino gutxiago gastatuko dela uste dut, ez baikaude txantxetarako. Kilo bat langostino erosi beharrean kilo erdiarekin pasatu beharko da. Dena den, egin ahalak eginda ere, diruak ez du ematen.

Maria Jesus Sasturain



Krisiak eragina izango du. Gaur egun dena kontsumoa da. Dagoeneko Gabonetako kanpaina hasi da eta egun horietan denok egiten dugu zer edo zer berezia, baina aurreko urteetan baino gutxiago gastatuko dugun susmoa dut.

Patricia Lopez



Aurreko gutxiago gastatzen saiatuko gara. Hori jakinik, sekula baino lehenago hasi dira jostailuak iragartzen. Prezioak ere asko zaindu dituzte. Gure dendan jostailuak ere saltzen ditugu eta uda ondoren dagoeneko eskaintzen ari zitzaizkigun. Jendea prezioak galdetzera etorri zaigu, baina beti bezala, askok azken egunera arte itxarongo dute erosketak egiteko.

Miguel Angel Alvarez



Jhovaren lekukoak gara eta ez ditugu Gabonak ospatzen. Jendeak aurreko urteetan ere ospatuko du, baina diru gutxiago gastatuko du. Ez zait ondo iruditzen ustez erlijiosoa den festa hala ospatzea. Erlijioak eta familiak gero eta garrantzia txikiagoa dute eta kontsumoak, berriz, handiagoa.

## Gaia: Larunbaten lausoa

### Doinua: Habanera

Amaia Iturriotz




Lainoek estaltzen duten/ilargiaren argira  
hitzez eman diozue/mundu osoari bira:  
azken asteko kontuak,/goizeko futbol partida,  
amaren errietak ta/Aneren ligea ginda.  
Nekea daukazuenez/oso gertutik begira  
begiek etsaitzat dute/beste autoen distira  
ta errealitateak/egin ohi duen neurrira  
bideko marra-etenak/lausotu egiten dira.

Baina alkoholak egin du/hain maniobra krudela  
ezen autoa bidetik/atera zaizuen bela.  
Kristalez lepo azala/gorputz osoa ubela  
amodio koloreko/odolez duzu mazela  
ta bera hor dakusazu/arnastu ezin duela  
badoazen minutuek/idazten dute eskela  
ahaztu duzuelako/ia astero bezela  
lausotu dezakeguna/itzali daitekeela.

## iritziz iritzi

Joxe Manuel Bereziartua



### Nola bazkaldu debalde boda batean

Lehengo batean mendira joan nintzen bizikleta-  
rekin. Bat-batean non ikusten dudan taldetxo  
bat, beraietako neska bat txuriz jantzita, argazki-  
lari baten aurrean. “Ezkontza bat!”. Gelditu, je-  
itsi txirringatik eta txamarra eta kamixeta kendu  
nituen. Pixka bat freskatu, ura edan... eta gero  
ikuskizuna gozatzeko eseri nintzen. Zein guapak  
zeuden neska guztiak, orrazkera rokoko haiekin  
eta zapata takoidunekin eta ze moxolo itxura  
zeukaten mutil guztiek *kajaorroseko* langile piura  
horrekin. Atentzioa eman zidan ikusteak gazte  
jendea nola ezkontzen den oraindik txuriz eta  
meza eta guzti. Tira, bakoitzak egin dezala nahi  
duena. Ni neu ez naiz joaten ezkontzetara nire  
aurrekontuak ez didalako aukerarik ematen

horrelako ezkontzek suposatzen duten diru-  
xahutze horietarako. Badakit aitzaki honek ez  
daukala batere glamourrik, baina neu ere ez  
naiz oso glamurosoa. Amaitzeko, ezkontza bate-  
an debalde nola bazkaldu azalduko dizuet.  
Esertzen zaretenean entzun jendeak esaten  
duena, eta inguruan dituzuenak senargaiaren  
gonbidatuak baldin badira zuek esan Ainhoaren  
lagunak zaretela. Emaztegaiaren gonbidatuen  
artean bazaudete, bota beldurrik gabe “Ai Axier  
Axier, zeinek esan ezkonduko zenik!!”. Erraza,  
ezta? Norbaitek galde lezake zergatik ez nuen  
gauza bera egin lehengoan. Tira, gauza bat da  
sanoa izatea eta beste bat ezkontza batera txi-  
rrindulari kulotea jantzita sartzea.



### Guajiro natural (2000)

Polo Montañez

Legazpiko lagun batzuek disko hau ekarri zidaten Kubatik (2002an uste dut). "Polo Montañez? Zein ote da?", pentsatu nuen. Hango jende soilaren idoloa zela esan zidaten. Nekazari xume bat, guajiro bat, zuzenezuzenean bihotzera heltzen diren abestien egilea, dantzan jartzen zaituzten doinuen sortzailea. Son kubatarraren esentzia. Ahaire beroak, melankolikoak, alaiak batetik; hitz hunkigarriak, benetakoak bestetik,

### Footnotes in Gaza

Joe Sacco

Egungo gizarte globalizatuan komunikabideek hartzen dute gu informatzeko ardura. Horregatik dira hain beharrezkoak kazetari eta sortzaile askeak. Joe Sacco 90. hamarkadan *underground* komikiak egiten hasi zen. Duela 15 bat urte kazetaritza eta komikia uztartzen saiatu zen. Testuinguru horretan argitaratu zituen *Gorazde*, *Palestina* eta *Footnotes in Gaza*. Azken honetan kontatzen da 1956 urtean Rafah

eta Khan Younis errefuxiatu eremuan Palestinako zibil askok jasandako erailketak lekukoek testigantzetan oinarrituz. Autoreak bi garai lotzen ditu: batetik: 1956ko hilketa, eta 2002ko bigarren intifada. Palestinako arazoari bi begirada, gizakien sentimendu eta beldurrak aztertzen dituen, komunikabideen manikeismo eta azalakerietatik erabat aldentuta.

Lutxiano

eta kantatzeko modu ederra azkenik. Segituan harrapatu ninduen, eta tarteka gustu handiz entzuten dut. Hit mordoak dauka. Latzak ia denak, barru-barruraino heltzen direnak. *Un montón de estrellas* (youtuben entzungai), *Canten*, *Un bolero*, *Guajiro natural*, *Mi mejor amiga...* Zoritxarrez 2002an hil zen Polo, auto istripu batean. Ondare ahaztezina utzi zuen.

Igor Susaeta



### Canino

Yorgos Lanthimos

*Caninok* txalet eroso eta handi batetan pake lasaian bizi den familia bat aurkezten digu. Yorgos Lanthimos greziarrak beraien eguneroko bizitza ezagutzera gonbidatzen gaitu. Gonbite hori azken urteotako proposamen aztoratzaile eta gogorrenetako bat bihurtzen da. Esan nahi duena garbi adierazten du, lehor, zotiltasun edota moralik gabe, estoizismo harrigarri batez josita gainera. Von Trier-en *dogma*, Pasoliniren lan

iraingarrienak eta Haneke onenaren naturaltasun txundigarria aipa daitezke filma hau kokatzeko garaian. Lanthimosen pelikulak edertasun arraro bat du. Iazko Cannes eta Sitgeseko zinemaldietan onespina jaso ondoren, *Caninok* datozen urteetan kontutuan izan beharreko zuzendari berri bat dakarkigu. Abenduaren 10ean Zelai Arizti aretoan eskainiko da.

ButaK 21 zineklub taldea



Itzainek Euskal Jaian urtetan zehar egindako lanari eskertza.

Josu Perez





# Gotzon Aranburu: kazetari peto-petoa

*Gotzon Aranburu zumarragarra kazetari-kazetaria da. 25 urterekin, dagoeneko lanean ari zela, bere ametsa betetzea erabaki zuen: Kazetaritza ikastera joan zen Leioara. Ordutik, hamaika lan egin ditu hamaika komunikabidetan: 'Egin', 'Gara', 'Otamotz', informazio lokala, kultura, idatzi, argazkiak atera, bideoak grabatu, liburuak argitaratu... Kazetari 'todoterreno' honek 1870 eta 1970 bitarteko Euskal Herriko historiari buruzko liburuak aurkeztu berri du.*

## **Noiz eta non jaio zinen? Zer diozu zure familiaz?**

Zumarragan jaio nintzen, 1962an. Lau anaia-arreba gara: hiru mutil eta neska bat, neu zaharrena. Gurasoak, Angel eta Juanita, biak baserrian jaioak eta ezkon-dutakoan kalera etorriak dira. Aita zumarragarra, ama Ezkiokoa. Aita kaldereroa izan da eta ama etxeke lanetan aritu da, eta ari da gaur egun ere. Ostiralero bazkaltzen dut gurasoen kontura.

## **Nola gogoratzen duzu haurtzaroa?**

Oso oroitzapen onak dauzkat ume garai-koak. Eitzako Elgarrestamendiko Leku Argi etxean jaio ginen lau anaia-arrebak; ospitalea egiteko bota zuten etxea gero. Elgarrestamendi hau auzo txiki bat bezalakoa zen, hiru baserriz (Elgarresta, Iturbene eta Mendizabal) eta gure etxeaz osatua. Han ibiltzen ginen jolasean Elgarrestako Miren Lore eta Aintzane,



Iturbeneko Maria Isabel, Duli, Juan Carlos (orain Afrikan misiolari dagoena), Mendizabaleko Josetxo eta Jabier, gure bizilagun Joxe Agustin eta Jesus Mari... eta beste hainbat. Gogoan dut kirkilak harrapatzea genuela zaletasun, eta Duliren amak, Dinak, erosten zizkigula kaiolak sukaldean kantari edukitzeko.

### **Non egin zenituen ikasketak?**

Medrano Akademian, Josefita eta Victoria Medranorekin. Gero Urretxuko Juan XXIII eskola publikora pasatu ginen, eta han bukatu genuen EGB. Ondoren, institutura.

### **Nola oroitzen dituzu ikasketak?**

Nik uste irakasle onak izan genituela, asko saiatzen zirenak. Denak gazteleraz, jakina. Nik Medranotarrekin ikasi nuen idazten, eta La Salle eskolan antolatzen ziren erredakzio lehiaketetan apuntatzen gintuzten. Sariaren bat edo beste eskuratu nuen eta nik uste orduan sortu zitzaidalako kazetari izateko gogoia. Beti ere, historia, literatura, hizkuntza... ikasgaiak gustatu izan zaizkit, eta zientzietakoak gorrotatu. Oraindik ere ekuazio sinple bat egiteko burua majo hautsi beharra daukat. Eta kimikako formulak... ezinezkoak.

### **Zergatik erabaki zenuen Kazetaritza ikastea?**

Aipatu dizudan horregatik, hainbestean idazten nuelako eta lanbide interesgarria iruditzen zitzaidalako, orain bezalaxe. Gure gaztaroa gorabehera politikoa, sozial eta kultural handikoa izan zen, eta kazetaritzak saltsa horretan ibiltzeko aukera aparta ematen zuen.

### **Fakultadean espero zenuena aurkitu al zenuen?**

Hasteko eta behin, esan behar dut institutuko garaian desastrea izan nintzela, ikasten ez beste guztietan aritzen bainintzen.

Garesti ordaindu nuen jarrera hura, eta aitarekin lanean hasi behar izan nuen. Gero ospitalean aritu nintzen, zeladore, eta unibertsitatera 25 urterekin azaldu nintzen, Koldo Larrañaga nire lagunarekin, biok elkar animatuta. Lanetik irten eta nire Morris zaharrean joaten ginen Leioara, kazetaritza ikastera. Espero nuena aurkitu al nuen? Beno, ia ez nintzen nerabea eta joan aurretik ere banekin gutxi gora behera han zer zegoen: teoria asko eta kazetaritza erreala gutxi.

### **Nola gogoratzen dituzu Unibertsitate garaiak?**

Lehendabiziko urtean Karmelo Landarekin asko ikasi nuen, Antton Azkargortarekin ere bai... baina berehala konturatu nintzen, edo niri hala iruditu zitzaidan behintzat, Leioara bueltaka ibilita baino gehiago ikasiko nuela lanean hasita, aukera izanez gero. Justu orduan *Egin* egunkaria herrietako kronika egiten hasi zen. Frogetara aurkeztu nintzen eta hartu egin ninduten.

### **Eta gaztaroaz zer diozu? Politika, parrandak, nesken eta mutilen arteko harremanak...**

Politika asko, nire inguruan behintzat. Parranda ere ugari, nahiz eta ni oso zozoa nintzen. Eta neskatan, ba... ahalegina egiten genuen. Ez zitzaigun hain gaizki joan. Oso gogoan daukadana da drogek, heroinak zehazki, egin zuten mina nire belaunaldiko gazteen artean. Izugarria izan zen. Bata bestearen atzetik erortzen joan ziren.

### **Nondik nora ibili zara lanean?**

Esan bezala, *Egineko* herriko kronika egin ez hasi nintzen. Egun osoko lana zen. Tolosan geneukan bulegoa eta han egiten genituen bost lagunek hasi Tolosatik eta

Legazpirainoko kronikak, Goierrri osoa barne. Han bai ikasi nuela, beharko. Idazten, maketatzen, testuak zuzentzen, argazkiak egiten... Arratsaldeko zortzieta-rako hamar orrialde erredakziora bidalita eduki behar genituen. Ondoren, *Egineko* kultura sailean lan egiteko jendea behar zutela eta, frogetara aurkeztu nintzen eta hartu egin ninduten. Hala, Hernanira joan nintzen, eta hura ere trebaketa etengabea izan zen. Egunkari batean, edozein dela ere bere ideologia, gaueko hamaiketarako orrialde guztiak idatzita, zuzenduta, maketatuta eta argazkiak sartuta egon behar dira. Eta hurrengo egunean, berdin. Euskaraz txukun antzean idazten *Egineko* ikasi nuen, Xalba Garmendia zuzentzailearekin. *Egin* itxi zutenean *Gara*-ra pasatu nintzen, gero *Argazki Press*-era, eta orain autonomoa naiz.

### **Nolakoa iruditzen zaizu kazetari lana? Zer du onena eta zer txarreana?**

Lanbide bezala, dagoen politenetakoa, nik ezagutzen dudan arloan behintzat, idatzian eta multimedian. Medio handi batean bazaude toki askotara heltzen zara, jende askorekin hitz egin, gauza ugari ikusi. Neurri batean bederen, lan sortzailea da. Lanbide gutxik ematen dizute aukera hori. Medio txiki batean ari bazara ere, beste eskala batean, oso esker onekoa izan daiteke, *Otamotz* lekuko. Eta gero, beste gauza bat dauka kazetaritzak: zure lana ikusi egiten dela, sinatu egiten duzula. Nik badauzkat lagunak oso ondo lan egiten dutenak, tailer batean edo aroztegi batean, eta inork ez daki. Zer duen txarreana? Bi gauza, garbi dauzkat: batetik, errepor-taje txukun bat sinatzerako, hamar betelan egin behar dituzula, alderdi profesionaletik batere interesik gabekoak. Eta bestetik,

medio askotan (publikoetan gu-txiago) lan baldintzak nahiko txarrak direla, bai ordu-tegi eta bai soldata aldetik. Bokazio handia behar da, nik uste, lanbide honetan aritzeko.

### Asko aldatu al da zu hasi zinenetik?

Aldaketa nabarmenena, dudarik gabe, teknologikoa izan da. Ez hainbeste ordenagailuek izan duten bilakaera, baizik eta nola jarri diren tresna multimediak gure eskura. Gaur egun, kazetari batek motxilan sartu dezake munduan barrena lana egiteko behar duen tresneria guztia: zuk hartzen duzu ordenagailu eramangarri bat, argazki-bideo kamera hibrido bat, G3 telefono mugikor bat, ingelesa buruan eta pasaportea poltsikuan, eta munduko ia edozein tokitatik has zaitezke kronika idatzia, irudiak eta bideoak bidaltzen. Hori duela hamar urte pentsaezina zen. Aldatu ez dena, lanbidearen gakoa da: aipatu tresna horiek denak edukita ere, ez bada-kizu jendearengana gerturatzeko, konfiantza ematen, inplikatzeko, ez duzu gauza onik egingo.

### Nola ikusten duzu kazetaritzaren etorkizuna?

Ondo. Badakit iritzi asko daudela gai honi buruz, baina informazio ona, kontrastatua, aportatzen duena, beti izango da balio-koa. Paperean iritsiko zaigun edo iPad batean? Bietan seguru asko, baina hori da gutxienezkoa. Ez dudana batere sinesten zera da, blogeroek benetako kazetaritza ordezkatuko dutenik. Kazetaritza ona egiteko eskarmentua behar da, bitartekoak, kontrastea... Nik blog pertsonal batzuk ikusi izan ditut, eta ondo, egileek adierazteko aukerak adierazten dute, baina niri ez zaizkit interesatzen. Edo hobeto esanda, paperean interesatzen zaizkidan

Gotzon Aranburu, eskuinekoa, anaiarekin.



kazetarien blogak interesatzen zaizkit. Jakina, galdera da ea bitarteko berri hauek (internet, iPad...) paperezko egunkaria hilko duten, diru aldetik kalte nabarmena egiten baitiote. Internet izugarri fenomeno aldrebesa da, prentsaren ikuspuntutik: egunkari bat argitaratzen baduzu, nahitaez interneko edizioa eduki behar duzula dirudi, baina interneteko edizioa baduzu paperezkoaren irakurleak galtzen dituzu. Eta dirua, gaur gaurkoz, paperak ematen du. Euskal hedabideak ari dira formulak bilatzen arazo honi aurre egiteko, esaterako eskualdeko *Hitza*.

### Historia ere oso gustuko duzu.

Nire ustez, ezin zara izan kazetaria kultura orokor dezentea ez badaukazu, eta ezin duzu kultura orokor dezentea eduki historia ez baduzu ezagutzen. Antonio Ayllonek eta Arantxa Artetxek erakutsi

zidaten historia institutuan, eta eragin handia izan zuten nigan. Gero, Euskal Herrian hainbeste gauza gertatzen dira... Egunero egiten da historia. Denbora kontua besterik ez da: gaur notizia dena, hoguei urte barru historia da. Adibide bat jartzearen, Burgosko Prozesua, duela berrogei urte eguneko notizia zen, eta gaur egun historiaren zati bat. Edo Lemoizko zentral nuklearra. Horrelako gaiekin osatu nuen *Euskal Herriko historia ezkutua* liburua.

### Argazki historikoez osatutako liburu bat aurkeztu duzu. Nolatan sortu da egitasmo hau?

Esan bezala, orain kazetari autonomoa naiz. *Gara* egunkariak 1870-1970 tarteko Euskal Herriko historia liburu bat ateratzea pentsatu zuen promozio gisara, argazkietan oinarrituta, argazkigintza Bigarren Gerra Karlistarekin iritsi baitzen gurera. Juantxo Egaña argazkilariari enkargatu zioten irudiak bilatzea, artxibotetan, bilduma partikularretan... eta niri tes-tuak egitea. Azkenean lau aletan argitaratuko da, azaroan hasi eta otsailera arte, hileko liburu bat, aurreneko igandean. Gaiak? Bada Gerra Karlista, abertzaletasunaren sorrera, industrializazioa, Lehenengo Mundu Gerra, Gerra Zibila, Bigarren Mundu Gerra, frankismoa... Burgosko Prozesuraino. Baina ez ikuspuntu politikotik bakarrik, baizik eta ohiturak, kirolak, garraioak, gizarte harremanak eta abar erakutsiz, beti ere Ipar eta Hego Euskal Herrikoak. Ikusteko eta irakurtzeko oso atsegina da, baina inoiz ere ez dugu testuen zehaztasuna arriskuan jarri irakurterazagoa egiteko. Euskaraz eta gazte-raz daude testu guztiak, eta motzak dira. Gauza bat garbi utzi nahi nuke: ni ez naiz

historialaria, inondik inora ere, eta nire lana izan da informazioa bilatzea eta argazki bakoitzari egokitzea. Neurriari dagokionez, liburu bakoitzak 125 orrialde izango ditu, bataz beste, eta egunkariarekin saltzen da.

**Ba al dago bereziki hunkitu zaituen argazkirik?**

Bai, bat baino gehiago. Bereziki, Durangoko bonbardeaketarenak eta naziak Donostian azaltzen direnak. Himmler eta Gestapoko beste buruzagi batzuk etxean bezala ibiltzen ziren Donostiako Boulevardean, terrazetan kafea hartzen eta neskekin *flirteatzen*. Gudariak fusilatzen zituzteneko argazkiak ere hunkigarriak dira. Eta jakina, Zumarragan egindakoak, 1934ko parlamentari eta alkateen batzarre ezagunekoak. Indalecio Prieto eta Telesforo Monzon azaltzen dira jendeari agur egiten, Agirre harategiaren parean, udaletxera bidean. Urretxuko Euskal Jaiko bat ere azaltzen da, eta batek baino gehiagok ezagutuko du bere burua. Baita Agiñetako Jeronimo Iturbe aizkolaria ere. Baina, pentsatzen jarrita, argazkiek baino ere gehiago hunkitu naute zenbait pertsonaren testigantzak, hala nola bonbardeoak jasan zituztenenak, edo Inglaterrara eta Sobiet Batasunera eraman behar izan zituzten umeen gurasoenak.

**Euskal Herriaren iraganaz asko irakurri duzu, baina nola ikusten duzu euskal gizartearen oraina eta etorkizuna?**

Galdera sakonegia da hau niretzat, baina ausartuko naiz esatera etorkizuna esperantzaz ikusten dudala, orokorrean. Era berean, beldur naiz ez ote garen oso gizarte pasiboa bihurtu, futbolarekin eta tabernekin nahikoa duena. Herri txikia

Gotzon Aranburu, 'Egin' egunkariaren erredakzioan.



gara, gure izaera arriskuan dago, eta ez dugula behar adina indar eta lan egiten etorkizuna ziurtatzeko iruditzen zait.

**Zer diozu zure argazki zaletasunaz?**

Argazki zaletasuna eta kazetaritza batera datoz. Egia esan, gaztetatik atera izan ditut argazkiak, amaren baserrian eta, baina herriko kronika egiten hasi nintzenean ikastaro bat egin nuen Paco Vierbucherekin, Urretxuko Kultur Etxean, eta hark erakutsi zigun argia neurtzen, enkuadratzen, errebelatzen... Ondoren, nire lankideei neuk eman nien ikastaro motz bat... eta kalera! Handik aurrera, ez diot soinean kamera eramateari inoiz utzi. Egunkarian lankide izandako argazkilariekin ordu asko sartu nituen, erredakzio lanak uzten zizkidan tarte guztiak. Jakina, profesional horiek puntako materiala erabiltzen dute, berriena, eta normalean afizionatu batek inoiz ukitzen ez dituen kamerak eta objetiboak erabiltzeko aukera izan nuen, tarteka bazen ere. Orain zen-

bat kamera dauzkadan ez dizut esango, baina bai denei egurra ematen diedala, ohiko argazkiez gain bideoak ere grabatzen ditudalako. Eta bideoarekin lan egiteak, ezinbestean ordenagailu indar-tsua erabiltzera behartzen zaitu.

**Zer beste zaletasun dituzu?**

Mendian ibiltzea, irakurtzea, euskarazko liburu zaharrak bilatzea (erostea ere bai lehen, orain ezinezkoa da, prezioarengatik), kartel bilduma egitea... Lagunekin kafea hartzea ere bai, baina poteatzaile eskasa naiz. Zinezale amorratua. Eta baserrian aizkoraz egurra txikitzea ere gustatzen zait.

**Ba al duzu ametsetako egitasmoren bat?**

Bai, ametsak bai, pertsonalak eta kolektiboak gainera. Badakizu zer esaten duten, betetako ametsak betetzeke daudenak baino gehiago direnean, orduan hasi zarela zahartzen, eta horixe ez zaigu ba komeni.

# Zazpi urteko gurutzebideak ezabatu ezin duen irrifarrea

*Urrian Udaltzaren aurkako epaiketa amaitu zen. Epaituen artean Miren Josu Aranburu eta Joseba Garmendia urretxuarrak daude. Zazpi urte pasatu dira dagoeneko auzia abian jarri zenetik eta denbora honetan guztian pasatakoaz hitz egin dugu beraiekin.*



Miren Josu Aranburu eta Joseba Garmendia Urretxuko Labeaga kalean.

**Zer lan egiten zenuten Udalbiltzan?**

Miren Josu Aranburu (M.J.A.): Udalbiltzan beka batekin sartu nintzen, soziologia lan bat egiteko: komunikabideen mapa. Lan hori amaitu nuenean, bertan gelditzea proposatu zidaten. Kudeaketa lana egiten nuen: lan taldeetan lagundu, batzorde eragilean parte hartu... Otsailean hasi nintzen eta Udalbiltzaren aurkako operazioa apirilean izan zen. Gauza handirik egiteko astirik ez nuen izan. Bestelakoan, Udalbiltzarekin izan nuen harremana zinegotzi bezala izan zen.

Joseba (J.G.): Udalbiltzan hainbat batzorde zeuden eta nik hasieratik Gizarte eta Ekonomia batzordean parte hartzen nuen. Burua Txato Agirre zen, EAJkoa. 2001ean batzorde eragileko kide hautatu ninduten eta nire gain hartu nuen Gizarte eta Ekonomia batzordea. Lan nagusiak bi izan ziren: Euskal Herriko argazki estatistikoa egitea (ekonomia, hizkuntza, kultura, demografia...) eta Xuberoa Garatzen plana aurrera ateratzea. Azken egitasmo honen helburua, bertako hautetsiek eskatuta, despopulazioari aurre egiteko nazio mailako auzolana martxan jartzea izan zen. Egitasmoak finantzatzeko diru bilketa kanpaina abian jarri zen eta Euskal Garapen eta Kohesio Fondoa sortu zen.

**Zer gehiago egin du Udalbiltzak?**

J.G.: Lan esparru gehiago izan ditu: kultura, komunikabideak, hezkuntza, hizkuntza, lurralde antolaketa... Hamaika egitasmo daude, Euskal Herriko meteorologia zerbitzutik hasita. Horren emaitza da, neurri batean, Euskalmet. Proiektu potoloenak Euskal Herriko Eskubideen Karta eta horren inguruan Kursoalen antolatu zen nazioarteko konferentzia izan ziren. Bost kontinenteetako estaturik gabeko herrien

ordezkariak etorri ziren. Bestalde, bakera-ko eta normalkuntza politikorako dokumentua egin zen eta 100.000 pertsona baino gehiagok duten Euskal Herriko Naziotasun Agiria bultzatu genuen.

**Dagoeneko zazpi urte pasatu dira Udalbiltza erasotu zutenetik. Nola oroitzen duzue 2003ko operazioa?**

M.J.A.: Zeharo ustekabeen harrapatu gintuen. Epaiaketa gure hasierako susmoa berretsi du. Inongo arrazoi juridikorik gabe prozedura batean sartu gaituzte. Arrazoa politikoa da.

J.G.: Bagenekien Espainiako gobernua nazioarteko konferentziaz eta Udalbiltzaz

*Joseba Garmendia:*

*“Gure lanak Aznarren  
gobernuari urduritasuna  
sortu zion eta moztu egin  
behar izan zuten”*

beraz jardun zela. Udalbiltzaren lanak Aznarren gobernuari urduritasuna sortu zion eta moztu egin behar izan zuten. Mozteko modu errazena ardura zuten zinegotzi eta alkateak hartzea zen, baina operatibiko oztopo handiagoak jartzeko langileak ere hartu zituzten.

M.J.A.: Ustekabeen harrapatu gintuen, baina gurea ere une hartan bizi zen errepresio bolada hartan koka daiteke.

**Nola joan dira zazpi urte hauek?**

M.J.A.: Lehen fasea kartzelakoa izan zen. Ondorengo urteetan fase desberdinak bizi izan ditut. Lehen urtean bitziza berrantola-

tu behar izan nuen eta ondoren hiruzpalau urte *lasai* egon dira. Fiskalak eskaera aurkeztu zuenetik epaiketa pasatu den arte, egunero maleta egiten aritu gara: fisikoki ez bada, mentalki. Urteak pasatu ditugu epaiketa noiz hasiko zain. Horrek guztiak bizitza kalitatea kaltetzen du. Egoera honetan gauzez gehiago gozatzen eta arazoak erlatibizatzen ikasi dut. Egoerara ohitu nintzela uste dut.

J.G.: Agonikoa izan da. Tramite guztiak 2007ko abenduan amaitu ziren. Ordutik bagenekien epaiketa edozein momentutan hasi zitekeela eta hori agonikoa da. Angela Murillo zegoen buru eta epaiketa iazko ekainean hasiko zela esan zuen. Ondoren irailean hasiko zela esan zen. Urria joan zen, azaroa joan zen... Auzia Gomez Bermudezen eskuetara pasatu zen eta honek 2009a bukatu baino lehen hasi nahi zuela esan zuen.

M.J.A.: Epaiketa abenduaren 14an hasiko zela esan zen. Ondo gogoratzen dut, Santa Lutzi egunaren ondorengo baita.

J.G.: Hala da, Madrilera joan aurretik bertsolari txapelketako finala ikusteko aukera genuela esan genuen. Azkenean epaiketa aurtengo uztailean hasi da. Hiru urteko agonia izan da. Tarte honetan elkartasun dinamika aktibatu behar izan dugu eta horrek lan handia ekarri du. Aberasgarria eta pozgarria izan da jasotako elkartasuna, baina lanak asko desgastatu gaitu. Hasierako lana guk egin genuen eta ondoren Bai Udalbiltzari! Sarea sortu zen. Horrek laguntza handia eman digu.

M.J.A.: Data zehatzik gabeko plangintza egin behar izan genuen, epaiketa noiz hasiko zen ez baikenekien.

**Nola bizi du familiak hau guztia?**

M.J.A.: Nire kasuan honetaz hitz egitea

saihesten dute. Norberaren izaeraren arabera da. Nire ama izatez ezkorra da, baina ez da harrizkoa: deklaratzera joan eta hamaika hilabete pasatu nituen kartzelan. Berari heltzen zaizkion mezuak baikorrak dira, baina badaki estatua zer egiteko gai den. Gainera, egoera politikoren eskuetan gaude.

J.G.: Ez dakit euskaldunon gauza den, baina gure sentimenduak eta beldurrak barruan gordetzen ditugu. Dena den, badakit familiarentzat hau guztia oso gogorra izaten ari dela.

M.J.A.: Gainera, familiakoek pare bat aldiz komunikabideen bitartez jakin dituzte zenbait gauza. Filtrazioek min handia eragin eta ezinegon handia sortzen dute. Ingurukoak ez ditugu sufriarazi nahi eta dena barruan gordetzeko joera dago.

### **Zer izan da gogorrena?**

J.G.: Espetxea eta kolokan egotea. Sufrimendu garaia da, ez genekien epaiketa noiz izango zen eta orain ez dakigu epaia nolakoa izango den.

M.J.A.: Zain egotea oso gogorra da. Gainera, bitartean beste epaiketa bazuk izan dira (18/98, Segi-Haika...). Horiek gertutik jarraitu ditugu. Epaikei buruz asko ikasi dugu, baina sufritu ere bai.

J.G.: *Egunkariaren* sententzia atera arte, ez genuen inongo itxaropenik. 18/98 epaiketan sekulako lana egin zen, sekulako babesa eta elkartasuna lortu zen, epaiketa juridikoki irabazi egin zen, perituek eurek frogarik ez zegoela esan zuten... eta hala ere sekulako zigorrak jarri zituzten. Horrek jarrera ezkorra hartzeraz eramatzen zaitu. Beti txantxa bera egiten nuen: hauek izango dira nire Urretxuko azken jaiak, hauek izango dira nire azkeneko Gabonak...

M.J.A.: *Egunkariaren* sententzia inflexio puntua izan da eta indarra eman digu, baina kalean dagoen baikortasuna frenatzen saiatzen naiz. Bestalde, Murillok epaitu behar gintuen eta Gomez Bermudezek epaitu gaitu. Horrek ez dakit sententzian eragina izango duen, egiteko moduan izan du.

J.G.: Epalea oso zuzena izan da, baina...

### **Ba al dago bereziki gogoratzen duzun unerik?**

M.J.A.: Kartzelatik atera nintzenekoa: sartu nintzenean ez nuen ezer ulertzen eta atera nindutenean ere ez. Sekula izan

*Miren Josu Aranburu:*

*“Nire egia dut,*

*ez dut inongo*

*zalantzarik, eta horrek*

*libre egiten nau”*

dudan sentsaziorik arraroena izan da. Pozik nengoen, baina nire bizitza kolokan sentitzen nuen oraindik ere. Dena den, une berezi asko izan dira.

J.G.: Nire une gogorrena Miren Josu eta besteak Auzitegi Nazionaleko kalabozoetan ikusi nituenekoa da. Ni barruan nengoen, baina beraiek euren kabuz joan ziren deklaratzera eta kalabozoetara sartu zituztela ikustea sekulako ezustekoa izan zen. Miren Josu han ikusi nuenean zerua gainera erori zitzaidan.

M.J.A.: Niretzat, ordea, Josebaren aurpegia ikustea une hartako gauzarik atseginena izan zen. Polizien artean nengoen

eta Joseba ikustek lasaitasuna eman zidan.

J.G.: Bestalde, espetxetik irteteak alde gozoa eta alde mingotsa ditu. Senitartekoak ikustea eta herrira iristea oso gozoa da, baina lagunak barruan uztea oso mingotsa. Horri buelta ematea kostatu egiten da. Hilabeteak eta hilabeteak ematen dira burua barruan.

M.J.A.: Han barruan adiskidetasunaren kontzeptua asko aldatu zitzaidan. Han ikasi nuen adiskidetasuna zer den. Barruko harremanek eta hemen kanpokoek ez dute zerikusirik. Bestalde, urte hauetako guztietako beste une gozo bat semearen jaiotza izan zen. Egoera hau gehien sufriarazi didana da, baina baita poztasun handienak eman dizkidana ere.

### **Zeintzuk dira euskarriak halako egoeretan?**

J.G.: Espetxetik pasatu gara eta infernu hori ezagutu dugu. Badakigu infernu horretara egokitze ahalmena dugula. Bestalde, gure lanaz oso harro gaude. Sekulako lana egin genuen eta hor ez dago deliturik. Egurra eman badigute lan ona egin dugulako da. Hori oso garrantzitsua da. Gainera, baikortasun puntu bat dugu. Egitasmo politiko batengan konfiantza dut eta herri honengan sinesten dut. Neure buruari gerta dakiokkeenari begiratu baino gehiago neure burua talde baten barruan ikusten dut eta horren arabera neurtzen ditut gauzak. Baikortasuna, ironia, lagunak eta senitartekoen berotasuna... ere euskarri garrantzitsuak dira. Bestalde, inguruan horrenbeste sufrimendu ikusita, gauzak desdramatizatu egiten dira: neure burua garrantzitsua da, baina ez naiz bakarra.

M.J.A.: Nire egia dut, ez dut inongo zalan-



tzarik, eta horrek libre egiten nau. Dena den, kartzelaldiaren ondoren ez naiz lehen bezain aktiboa. Beldurrak eta ezinegonak asko frenatu naute. Euskarriekin jarraituz, denbora honetan guztian errespetua erakutsi didatenak ere euskarri bezala hartu ditut.

**Horrekin lotuta, zer esango zeniekete Urretxu eta Zumarragako herritarrei?**

M.J.A.: Antolatzaileei eta ekimenetan parte hartu dutenei eskerrak eman nahi dizkiet.

J.G.: Elkartasuna adierazi diguten guztiei eskerrak eman nahi dizkiet. Bereziki gu bezala pentsatu ez eta elkartasuna adierazi digutenei. Hor alderdi politiko ezberdinetako jende asko dago. Gainontzeko guztiei proiektu politiko demokratiko bat aurrera atera nahi izatea ezin dela delitutzat jo esan nahi diet. Bestalde, abertzaleak sentitzen direnei egitasmo politiko erakargarri bat egiteko eta gehiengoa handitzeko aukera dugula esan nahi diet. Eszenatoki berri bat irekitzen ari da eta bide demokratikoak eta baketsuak erabiltzea beharrezkoa da. Horretarako, alde guztietatik egon daitezkeen indarkeria eta demokraziaren aurkako jarrerak desagertu egin behar dira.

M.J.A.: Herria bera izan zen, gure kasuan Urretxu, ordezkari hautatu gintuena. Hala, gure herriaren etorkizunerako baliagarritzat dugun lan legitimoa egin dugu.

J.G.: ETak jarri gaituela esaten dutenean, grazia egiten dit. Herriko bi pertsona nagusi izan ziren zerrendetan aurkeztea proposatu zidatenak... Beraiek proposatu ez balidate ez nintzen zinegotzia eta Udalbiltzako kidea izango.

M.J.A.: Niri Josebak konbentzitu ninduen zinegotzi izateko, baina Udalbiltzako langi-

le postua nire kabuz eskuratu nuen: kurrikuluma bidalita.

**Epaiaren zain zaudete. Nola sentitzen zarete?**

J.G.: Azkeneko hiru urteetako lan zorame-na pasatu da. Orain lasai gaude, baina aurki urduritzen hasiko gara. Epaietatik oso pozik atera gara, deliturik ez dagoela frogatu baita. Lehen eguna oso adierazgarria izan zen: fiskalaren galdera guztiak aktibitate politikoen ingurukoak izan ziren. Bestalde, ETakoak garen edo ez garen argitu behar zen. Instrukzioa egin duten polizia ETaren eta gure artean inongo harremanik ezin izan dutela frogatu esan dute. Fondoak bidegabeki erabiltzearena ikertu ez den hipotesia dela ere esan dute. Bost urteko kartzela zigorra ezarri nahi didate horregatik! Ezin gara ETakoak izan guk geuk jakin gabe eta beraiek ere ondo dakite. Baina fiskalak Udalbiltza ilegalizatu

*Joseba Garmendia:*

*“Ez dituzte 21 pertsona epaitu, Udalbiltzan parte hartu duten guztien botoak baizik”*

nahi du. Berak esana da horretarako batzuk espetxera eraman behar baditu eraman egingo dituela.

M.J.A.: Lehen helburua Udalbiltza legez kanpoko deklaratzeko da.

J.G.: Demokrazian legezkoa izan behar-ko litzatekeen jardura da eta Loiolako negoziaketetan PSOE Udalbiltza onar-

tzeko prest zegoen. Udal hautetsiek osatzen dute eta bere aurrekaria 1931ko hego Euskal Herriko lau probintzietako alkateen bilkura da. Garai hartan ere errepresioa egon zen. 79 urte berandua-go historia errepikatzen ari da. Bada garaia demokraziaren kontzeptu zabal eta sakona edukitzeko.


M.J.A.: PSOE denek berdin pentsatzen dutela pentsatzea zaila egiten zait.

J.G.: PSOEko batzuen elkartasun hitzak ere jaso ditugu. Badakigu PSOE bi korrante daudela, baina Udalbiltzak gatazka honen bi gako nagusiak (lurraldetasuna eta erabakitze eskubidea) era demokratiko eta baketsuan lantzen zituen. Hor geunden guztiok zinegotzi eta alkateak ginen eta formulazio juridiko publikoak zuen: partzuergoa. Sorrera buletinean argitaratu zen, tramite guztiak bete ziren, aurrekontuak buletinean aurkezten ginituen, kontuak auditatu egin ziren, egindako guztiarekin *Udalhitza* aldizkaria argitaratzen genuen eta alkate eta zinegotzi guztiei helarazten genien, asanbladarako gonbitea ere denei luzatzen genien... Gardentasuna erabatekoa zen. Justizia egiteko modu bakarra absolutzioa da, deliturik ez baitago. ETakoak ez garela eta ETarengandik inolako agindurik ez dugula jaso frogatu da. Bestalde, ezin daiteke delitutzat hartu horrelako erakunde bat eraikitzea. Are gutxiago kargu instituzionaletan oinarritua badago. Ez dituzte 21 pertsona epaitu, horiek ordezkatzeko dituzten 70.000 botoak gehi Udalbiltzan parte hartu duten gainontzekoen botoak baizik. Eta herri honen gehiengoak absolutzioa behar dela esan du, 2008an Gasteizen onartutako legezko proposamenaren bitartez.

# Gorka Azkarate: 213x3.000=Pirinioetako errege

*Denok dakigu munduan zortzimila metrotik gorako hamalau gailur daudela. Baina, nork daki zenbat diren hiru mila metro baino gehiago dituzten Pirinioetako mendiak? Gorka Azkarate urretxuarrak ederki asko daki, guztiak igo baititu. 213 dira: lehena 1993an igo zuen eta ia 90 inguru igo zituen.*

Gorka Azkarate Monte Perdido tontorrean, aurtengo udan.



## **Nondik datorkizu mendizaletasuna?**

Txikitan hasi nintzen mendian ibiltzen, gurasoekin. Ondoren ikastolako irteeretan parte hartu nuen eta azkenik hiruzpalau lagun geure kontura hasi ginen. Hasieran hemengo mendietan ibiltzen ginen (Aizkorri, Txindoki, Gorbea...) eta gero Pirinioetara salto egin genuen. Lehenengo aldiz 1993an joan ginen, 16 urte nituenean. Ostadar eta Goierriren mendi irteeretan parte hartzen hasi ginen eta euren eskutik hasi ginen hirumilakoen zerrenda osatzen. Azken hamar urteetan autoa erabiltzeko aukera izan dugu eta geure kontura joan gara. 2005ean bakarrik joan nintzen lehenengoz. Geroztik aurrera, gehiengotan bakarrik joan naiz.

## **Beste kirolik egin al duzu?**

Gehien gustatzen zaidana mendian ibiltzea da, baina horrek korrika egitera eta mendiko lasterketetan parte hartzera eramana nau. Errepideko lasterketa batzuetan

ere parte hartzen dut, baina mendian ibiltzea da gehien atsegin dudana.

**Dena den, aurten Behobia-Donostia lasterketan parte hartu duzu eta denbora oso ona egin duzu.**

Benoa... Ez da egin dudana denborarik onena, baina txarra ere ez.

**Zer ematen dizu mendiak?**

Errepidean korrika egitea aspergarria da. Ez dut oso gustuko, nahiz eta entrenatzeko ona den. Mendira joatea aberasgarriagoa da: gure kulturari lotuta dago, natura, paisaia...

**Nolatan erabaki zenuen Pirinioetako hirumilako guztiak igotzea?**


Kasualitatez izan zen. Lehena 1993ko Pilarika zubian igo nuen. Ostadarreko askok gogoratuko dute irteera hura, aurreko astean elur asko egin baitzuen eta ezin izan baikenuen gauza handirik egin. Urria izateko elur asko zegoen. 1994an beste batzuk igo nituen Ostadar eta Goierriekin. Urtero hiruzpalau mendi igotzen nituen, ezagunenak. Oraindik ez nuen hirumilakoen zerrenda. Duela hiru urte Ordesako hirumilako ia guztiak igo genituen hiru egunetan, 22tik 21, dagoeneko zerrenda eskuartean genuela. Orduan otu zitzaidan hirumilako guztiak igotzen saiatzea. Duela bi urte dezente igo nituen, iaz pila bat eta aurtengorako 16 utzi ditut.

**Zenbat dira guztira?**

213. Izan ere, mendi multzo bakoitzean hirumilako tontor pila bat dago. Tontor nagusitik lepoetara gutxienez hamar metroko desnibela egon behar da hauek ere gailur bezala hartu ahal izateko. Horretaz gain, maparen batean azaldu behar dira. Horren arabera, 213 dira gailurrak.

**Jende askok egin al du balentria hau?**

Pico de la Rimayan.



Ez dakit. Norberaren gauza da. Guztiak igo ditudala diot eta hori erakusten duten argazkiak ditut, baina ez da inon paperik zigilatuta behar.

**Gehienak azken urteetan igo dituzula esan duzu.**

Gehienak udan igo ditut. Iaz 90 inguru igo nituen, asteburu askotan jarraian eguraldi ona egin baitzuen. Uztailean lau asteburutan jarraian joan nintzen eta abuztuan beste hiruzpalau irteera egin nituen. Iaz hamar bat irteera egin nituen. Egunduan 16 gailur zapaldu nituen, Vignemalen. Beste batean 15 igo nituen. Normalean egunduan bost bat igo ditut, baina egunduan batean bakarria igo nuen oso isolatuta zegoelako.

**Bakarrik burutu al duzu egitasmo hau?**

Mendi batzuetara lagunduta joan nintzen, baina ni nintzen hirumilako guztiak egiteko

asmoarekin zihoan bakarria. Dena den, badakit beste batzuk honetan ari direla.

**Nola sentitzen zara helburua bete ondoren?**

Ez nuen presarik, baina aurtengorako 16 bakarrik falta zitzaizkidanez...

**Zer izan da gogorrena?**

Mendi batzuetan soka erabili behar da eta eskalatzen apur bat iaioa izan behar da. Zailena, seguru aski, Balaituseko ertz bat da.

**Eta ederrena?**

Egun guztiak izan dira ederrak, baina Vignemaleko eta Perdigueroako irteerak oso bereziak izan ziren.

**Mendiren bat bereziki gustatu al zaizu?**


Sorpresentzako tartea txikia da, etxetik irten aurretik oso ondo begiratzen baitut nondik nora ibili behar dudana.

**Iruñera errepidea eta Iparraldeko autopista ederki ezagutuko dituzu...**

Batzuetan egun bakarrerako joan naiz eta mendian ordu asko eman ondoren autoa hartzea ez da oso gomendagarria. Bestalde, Benasquera askotan joan naiz eta asko kostatzen da hara iristea, baina hirumilako asko han daudenez...

**Etorkizunerako zer asmo dituzu?**

Jendeak laumilakoak igotzeko esaten dit, baina hori zailagoa izango da. Batez ere urrutia daudelako. Mendian ibiltzen jarraituko dut. Pirinioetan hirumilakoak ez diren mendi interesagarri asko daude. Denok hirumilakoetara joaten gara, baina bimilara iristen ez diren asko ere funts handikoak dira. Hirumilakoen ertz batzuk ere egin nahi ditut. Maladetako Pico de Albakoa, adibidez. Bestalde, Ordesako hirumilako guztiak egunduan bakarrean egin ez izanak pena eman dit. Hurrengo udan saiatuko naiz.



Alex Areizaga

Informatika

## Googleren funtzioak

Gure bizitzan Google ahalguztiduna gero eta gehiago behar dugu, baina bilatzaile erraldoi honen hainbat funtzio gehienontzat ezezagunak dira oraindik. Google Scholar, Google News eta Google Reader dira horietako hiru. Google Scholarrekin ([scholar.google.com](http://scholar.google.com)) unibertsitateetan eta antzekoetan argitaratzen dituzten lanak bila ditzakegu. Bestelako bilaketetan aurkituko ez genituzkeen edo identifikatzea kosta egingo litzaigukeen emaitzak lortzen ditugu horrela. Google News, berriz, albisteak soilik erakusten dituen bilatzailea da. Hirugarrenik, Google Reader ([www.google.es/reader/](http://www.google.es/reader/)) RSS jarioak bateratzeko oinarri birtuala da. Gmaileko kontu bat behar dugu Google Readerrera sartzeko, eta behin hori eginda, interesatzen zaizkigun RSS jario guztiak batzen joateko aukera ematen digu, guk nahi ditugun moduan sailkatzeko aukera emanez.



Oihane Sudupe

Osasuna

## Perretxikoak

Perretxikoak proteinetan aberatsak diren ideia nahiko zabaldua dago eta hau ez da guztiz egia. Portzentaia handiena kontuan hartuta (5,5 gramo ehuneko), barazkietatik lekaleetatik baino gertuago daudela esan-gogenuke. Gantz kopurua ere eskasa da eta era berean kaloria gutxi eskaintzen dizkigute. Barazkiek bezala karbohidrato gutxi dituzte eta zuntz dietetiko iturri pobreak dira (zurtoina aberatsagoa izanik). Mineralei dagokienez burdina da azpimarragarriena, baina kobrea eta fosforoa ere azpimarratzekoak dira. Sodio kopurua urria da. Hortaz, gatz gutxi dute. Bitamina iturri garrantzitsua dira perretxikoak, batez ere B taldekoak, metabolismoarekin zerikusia dutenak hain zuzen ere.

# Izandako izena

Parkean jolasean dabilzan umeek ez dute atentziorik ematen. Ziburuetan dilindan, txirristan irristaka, bankuetan hostoak saltzen dituzten dendak antolatzen, koloretako baloiak batetik bestera saltoka, inurri-ejertzitoak haien atzetik... Taldean konkistatzen dute ingurunea. Hamar minutuko tartean ezagun, lagun min eta etsai egin daitezke. Bost minutu baino ez dituzte behar dena ematetik dena kentzera pasatzeko. Parkean ikusten ditudan umeon artean bat nirea da eta beste batek atzerritarra dirudi.

Haien eskalara egindako mundu txiki honetan, alegia, parke santu honetan, gure Aimar ez da erraz aspertzen. Alabaina, gaurkoz nahikoa da, etxeratu beharrean gaude. Ez da gozoa jarriko hurbildu eta esaten diodanean: "Maitea, etxera joateko ordua da. Goazen bainu bero-beroa hartzera. Ez jarri horrela, etorriko gara bihar ere zure laguntxoekin jolasteko. Esaiezu agur. Goazen, Aimar. Goazen baina. Ez zaitz horrela jarri". Parkeetan ez dute atentziorik ematen seme-alaben besoetatik tiraka pazientzia agortzen duten gurasoek.

Banoa Aimarrengana, neka-neka eginda dago gaur gure mutila, hala ere niri kontra egiten xahutuko ditu eguneko azken indarrak. "Mesedez, pixka bat gehiago. Oso ondo pasatzen ari naiz. Oraindik goiz da. Mesedez, oso gutxi jolastu dut". Errukiaren estrategia ume-umetatik. Adorez eta goxotasunez jantzi eta banoa semearengana. Ikusi nau eta ezikusiarena egin du. Gainera, poliki-poliki azeri-azeri nigan-dik urruntzen saiatzen ari da. Horrela ibili beharra ere! Parkeetan ez dute atentzia ematen seme-alabei segika dabilzan gurasoek.

Gaur etxerako ordua luzatzeko estrategia desberdina da: "Laguntxo berri bat egin dut: Josune". Eta bere ondoko neskatilatxoak irribarre egin dit. Atsegina eta pikaroa da Aimarren lagun berriaren irribarrea. Parkean arreta jarritan nien bi umeak ditut parean: gure Aimar eta atzerritarra dirudiena. "Kaixo, Josune! Aimarren laguna zara orduan. Zertara jolasten ari zineten horren gustura?"

Aimarrek gaur gaiarekiko nire interesa piztuz lortu du bere

parkeko jolas-garaia luzatzea. "Atzerritarra dirudi neskatok, Josune du izena... Ea euskaraz zer moduz erantzuten didan?" Konturatu gabe nire semearen laguntxo berriaren jatorria ikertzen sartuta nago buru-belarri. Asko inporta zitzaien, bada, Aimarri. Parkeetan umeak hamar minutuko tartean ezagun, lagun min eta etsai egin daitezke. Bost minutu baino ez dituzte behar dena ematetik dena kentzera pasatzeko. Eta, beharbada, lagunaren jatorriak atentzia ematen badie ere, ez diote, hasera batean, jaramon handiegirik egiten.

Ez Josunek ez du nire galderari euskaraz erantzuteko hitzik topatu. "Bai" esan dit, ulertu didala adierazteko-edo. "Ni Josune". "Uste dut ez dakiela oso ondo euskaraz". Aimarrek ere igarri dio "A ez, eta zer hizkuntzatan ari zineten, bada, jolasean?". Nire barruko ikertzailea berriz azaleratu zait. Josuneren begi bizi-biziki ikusi ditu: "Muchos, yes, oui". Semeari begiratu diot. Aimarrek ere begi bizi-biziki erantzun dit: "Muchos, yes, oui". Eta barre egin dute biek.


Pasa dira hamar minutu etxera joateko ordua zela esanaz, Aimarrengana hurbildu naizenetik. Gaur kasketarik gabe, bere terrenora eraman nau gizontxo txiki honek, ez daki ezer! Josunek eta biek jolasean jarraitzen dute. Nik, ikertzaile honek, galderaren bat egiten diodanean ahal duten moduan, ardura handiegirik gabe erantzun egiten didate. "Ai, ene! Hori da hizkuntza mordoak dakizkizuena, euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez, frantsesez... Deskuiduan ez al duzue besteren bat ere ezagutuko!". Isiltasunarekin eta algara iheskorrekin erantzun didate biek. Hau da hau pare! Bestelakoa zen nik espero nuen erantzuna. Josunek jakin behar du beste hizkuntzaren bat. Semea tematzen dela esaten dudanean, norengandik datorkion asmatzeko pistak badituz!

*Amaia Artolazabal Amilleta*

[www.otamotz.com/index.php](http://www.otamotz.com/index.php) Web orrian ipuina osorik irakur dezakezue, *Aldizkaria* saileko *Ipuinak* atalean.

## Gaizka Alberdi

Gaizka Alberdi zumarragarak 28 urte ditu eta San Jose ikastetxean, Joxe Mari Iparragirre institutuan eta UGLEn egin zituen oinarritzko ikasketak. Selektibitatea gainditu ondoren, Unibertsitatera joan beharrean Donostian sukaldaritza ikastea erabaki zuen. Etxeberrin, Astun eski estazioko jatetxe batean eta Buhame tabernan lan egin zuen Urretxuko pilotalekuko taberna hartu aurretik. Iazko ekainean Saski taberna ireki zuen Iñaki Gereñurekin batera. Azaroan Zumarragako lehen pintxo lehiaketa irabazi dute. 'Ferrero Rocher' kroketa Alberdik sortu du, buzkantza eta fruitu lehorrekin.



### Zer izan nahi zenuen umetan?

Zabor-biltzailea. Gauero balkoira irteten nintzen poltsak kamioira nola botatzen zituzten ikustera.

### Aisialdian zer egitea atsegin duzu?

Mendirra joatea eta lagunekin egotea.

### Bizitzeko toki bat?

Hemen gustura bizi naiz, baina Menorca toki zoragarria iruditu zitzaidan denboraldi bat pasatzeko.

### Gustuko sukaldaria?

Aduriz tipo umila eta argia iruditzen zait.

### Gustuko sukaldaritza?

Ekialdeko herrialdeetako gero eta deigarriagoa iruditzen zait.

### Denetik jaten al duzu?

Gibela eta tripakiak ez ditut jaten. Gibelak behin kalte egin zidan eta ordutik kozinatu ere ezin dut egin. Tripakiak jaten dituen jendeak inbidia ematen dit, baina ez naiz jateko gai.

### Sekula jan duzun gauzarik onena?

Baqueirara bidean entsalada bikaina jan genuen: bieira, mangoa eta urdaiazpiko iberikoa zituen.

### Ileheriak ala beltzaranak?

Beltzaranak.

### Egindako azken oparia?

Ezkondu berri den koadrilako bikote bati *Home Cinema* erraldoia oparitu diogu.

### Eta jasotakoa?

Poltsatik zintzilik daramadan tximino txiki bat.

### Data bat?

2007ko San Joan eguna. Gertatu zenak nire bizitza goitik behera aldatuko zuela uste nuen.

### Mutil eta neska izen bana?

Noa eta Anartz. 'Tz' dutenak gustatzen zaizkit.

### Zein egunkari irakurtzen duzu?

Harrapatzen dudana. Normalean egunkari bat eta kiroltako bat irakurtzen saiatzen naiz. Tabernako *Marca* irakurri ondoren sukaldeko zorua lehortzeko erabiltzen dugu.

### Gustuko telebista saioa?

Ez naiz telebista zalea.

### Bereziki gorroto duzuna?

Telebista atsegin ez dudanez, ez dut saiorik gorroto.

### Pelikula bat?

*La vida de Brian*.

### Liburu bat?

Ohe ondoan erretzeari uzteko liburua dut.

### Abesti bat?

Doctor Deseo taldearen *Abrázame* eta U2 taldearen *One*.

### Soinu bat?

Isiltasunarena.

### Usain bat?

Kanelarena. Lapikora bota aurretik usaindu egiten dut beti.

### Janari bat?

Ez dut bat bereziki atsegin. Askotan konpainia garrantzitsuagoa da.

### Ura ala...

Ardoa, garagardoa eta gin-tonic ona, bakoitza dagokion unean.

# PREMANK

KANPO-KONTRATAZIO BIDEZKO PREBENTZIO ZERBITZUA

**GURE LANAK  
PREBENTZIOA  
DU HELBURU**



KALITATEZKO ZERBITZU ERAGINKORRA  
GERTUTASUNA, BIZKORTASUNA ETA BEZEROARI ARRETA

Argixao industrialdea, 55 pabiloia - 20700 ZUMARRAGA (Gipuzkoa)

☎ 943 72 41 00

e-mail: [administracion1@premank.com](mailto:administracion1@premank.com)

## IRNASA EURO, S.L.


AHOLKULARITZA ETA KALITATE,  
INGURUMEN ETA  
LAN-ARRISKUEN ARLOKO  
SISTEMAK

Argixao industrialdea, 55 pabiloia  
☎ 943 72 41 00 - Fax: 943 72 49 09  
e-mail: [irnasa@facilnet.net](mailto:irnasa@facilnet.net)  
ZUMARRAGA



# Construcciones **MENDIOLA**

Labeaga, 7  
20700 URRETXU (Gipuzkoa)  
Tf. 943 72 05 11  
Fax: 943 72 44 10  
E-mail: mendiola@cmendiola.com  
www.cmendiola.com



Etxebizitzen eraikuntza  
Industria pabilioiak  
Urbanizazio lanak